## IRAILLA

270 1935 95
Eguzkia: atera 5,15
sartu 18,48
gaur illargi berria

# 27

## OSTIRALA

Dk.: Kosma, Damen, osagilleak; Adolba, Jon, Polendin, Terentzi. Ep.kardie. zk.; Marka, Kaya, gk.; Ildurde, n.; Elazar ait.

—¿Nere alaba biar dezula beraz?

—Bai jauna, ortara nator.

—Ondo da; baña nai ditut aurretik gauzak ondo garbitu.

—Ori da, jauna, nere desiua.

—Nik alabari amar milla duro eman nezaiozke; ¿zuk zerekin kontatzen dezu?

—Nik... oyekin.

## IRAILLA

271 1935 94
Eguzkia: atera 5,16
sartu 18,46
5'an ilgora

# 28

## LARUNBATA

Dk.: Bentzesla, Markel. Laurentzi. Marka Albi, Masima zk.; Esuperi, Silban. Salomon. gk.; Eustoke, Lube, nk.

# Arno'ko kurutza

Goian oztiñari mendi-lerroak mun.
Lañoak igeska eguzkiari.
Ardi dizdiratan kurutze bat illun
tontor goienean Arno'n ageri.

Leiotik neretzat aurrez-aurre beti
gaillurrean zutik dagon kurutza...
Maitasun Legeak ludian geznari
Euzkadi'ko mendi tontor bakoitza.

Bera, asabengandik gogoan damagun
Yaun-sinispenaren ikur maitea,
aberri nerean elburutzat degun
Goi-aberrirako zuzen bidea.

O¡ Arno mendian zeru-lurren mugan
ikusten zaitudan kurutz lerdena!
¡gogora mintzatzen begietan dedan
ikusgarri eder eta onena!

Asabak bezela or goian zaitugu
errien gaiñetik gure yabetzat;
asabak bezela gaur bean nai degu
zure irudi deuna geinkean ainbat.

Sendiaren euskal etxeetako ormetan,
gure Udaletxeetan, uri nagusi,
bide-kurutzetan, eta nun-nai geran,
gure ildegietan gogoen argi.

Gazteak dezala zure antza egin
bere yolasetan ekin baño len
gizonak, ludiko gauza guzien gain
aitor ba-zaituzte, dira sendoen.

Neskatxak zaitzala maitasun garbitan
bere biotzean kutuntzat yarri;
orrela, neskutzak aberri-lurrean
donoki usaindun ainbat zitori.

Amaren altzoan ikasiak gera
zure antz deun ori geugan egiten;
Erosle gurea, Yosu Biotz-bera
zugan maite, gurtu, ta baita antzaltzen.

Yaungoiko Semeak gizadi-oiñazak
beregandu zitun neke-Zuaitza,
ain odol Deun-deunez bere maitasunak
ikurraztu zindun pake-ikurritza.

Zugan bizi gera Goiko itxadopenez,
samin orok zugan osagarria,
gaur nere abendak bere antz ederrez
ludia gel-daukan Tabor mendia.

Gogoa doakit sinispen egatan
beso zabal zauden gaillurrerano;
¡ai! ludi osoa nere besoetan
eramen al ba'neu, ainbat naiago;

baña ¡etsaiak gaur, yaurti nai zaituzte
arki nai zaitugun toki guztitik!
zoritxardun gera, ba lotuak gaude...
¡Azkatu Euzkadi oien menpetik!

MUXIKA'TAR ERROBUSTENE
«TENE»

(«Eusko olerkiak» liburutik artua).


**Etxegintzarako zer nai gai**

**AMONDARAIN'dar KEPA**

**Bildegi ta idazkolak: Gorosabel, 32'gn.**

**170'gn. Ufutizkiña**

TOLOSA


## IRAILLA

272 1935 93
Eguzkia: atera 5,17
sartu 18,44
5'an ilgora

# 29

## IGANDEA

Pentekostes - ondoko amaseigarren Igandea. Eguneko meza ta bezp. Ebanj. Argi Donea 590. Eres: Lucis.
Mikel deunaren eguna
Dk.: Erritxime, n.; Eutiki. Paulda. Erakel, Gudele, zk.; Kureka.

—Josetxo ¿urte zor noiz izaten da?
—Urtiaren aitzenian.
—¿Eta urteberri?
—Urtiaren asieran.
—Eta urte berri ta urte zar urte batean izaten al dira?
—Ez jauna.

## IRAILLA

273 1935 92
Eguzkiya: atera 5,18
sartu 18,42
5'an ilgora

# 30

## ASTELENA

Deunak: Jeronima, ait.; Loparda, Bitoř, Urtsa, Andonin, zk.; Gergori Onori, gk. Sope, alarg.